



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abagune tenorea, une egokia	Ez da, ordea, horretarako abagunerik izan, hortik pixka batera te tokiko arduradun nagusiaren etorrerak nire asmo onak erabat zapuztu ditu...	138
aberri norberaren lurraldea, nazioa	Kontraste handia sortzen du arinkeria horrek aberri kontuetan sumatzen den begirunearekin.	25
abolitu deuseztatu	"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen.	26
aditu entzun	...iritzi oso desberdinak aditzen hasi ziren...	12
adore kemena, ausardia	Agian dotoreegia da niretzat Mianeh-ko hotel hau, baina sari moduan eman diot neure buruari, adorea berreskuraturik bizikleta ostera ere hartu eta...	126
aingeru jagole zaindaria, babeslea	Neuk ere hartu dut esker onez nire aingeru jagoleak hor kokatutako kamiolariaren laguntza...	124
akabatu hil, garbitu	...herrikideek, atoan obedituz, ikasleari heldu eta akabatu egin zuten.	11
aldats aldapa, malda pikoa	Arimarik gabeko eremua, aldats gora etengabea, haize arerioa, laino oso trinkoa.	134
alderatu konparatu	Lehenengo eta oraingo sentipenak alderatuz ...	173
aldra jende piloa	Han militar, polizia zein zibil aldrak ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik.	26
alproja ganorabako alferra	Alproja , bai horixe! Nahi duenean islamdar petoa eta komeni zaionean atzerritar interesantea.	115
altzo magala, sabel alde	...nori eman zion botoa, konfiantzarik ba ote daukan Khatemiren borondate eta ahalmenean, zelako etorkizuna espero duen altzoan daukan umetxoarentzat.	127
alukeria ergelkeria	— Normalean alukeria ederra egiten zaio eskaintzaileari, eta gogoz kontra eraman beharko du gonbidatua etxera.	135
amildegi erroitza	...kokagunea eta ikuspegia: mendi lehorretako amildegiak hemen alboan...	58
andana sorta, multzoa	Nongoa naizen ulertarazteko ere modurik onena berba andana hau botatzea dela ohartu naiz.	24
apeta guraria, kapritxo	<i>Hala ere, ez nago prest zeure apeten arabera moldatzeko nire bizia.</i>	149
apopilo ostatu hartuta dagoena (<i>huesped</i>)	... apopiloek bertan etzanda hartzen dute atseden.	42
arerio etsaia	Arimarik gabeko eremua, aldats gora etengabea, haize arerioa , laino oso trinkoa...	134
argudiatu arrazoitu	...ez dio kasu handirik egin, gaur egun berezia zela argudiatuz .	92
arinkeria arduragabekeria	Kontraste handia sortzen du arinkeria horrek aberri kontuetan sumatzen den begirunearekin.	25
arraboldun rodilloa duena	...atzoko tabernari arraboldunaren jarrera oldarkorra ekarritz gogora.	93
artegatasun urduritasuna	...ikuskitzen honek baretu egiten du nire ezinegona, nire artegatasuna ...	17
atariko sarrera, aurrekaria	Telebistan izan dute arreta, Turkiako futbol-selekzioaren partidu erabakigarriaren atarikoetan .	84
atoan berehala	...herrikideek, atoan obedituz, ikasleari heldu eta akabatu egin zuten.	11
atxikimendu lotura	Bizarrak nolabaiteko atxikimendua adierazten duelako...	93




azkuratsu ukitu latzekoa	Erantzuten ez niola ikusita, sorbaldetatik heldu dit, tinko, bere alderantz tira egin du... eta musu azkuratsu bi eman dizkit.	141
baretu lasaitu	Une batez baino ez dira baretu haien kritikak, taldekideen ezagun bizardun bat jatetxean sartu denean.	93
beduino arabiar nomadak	...zikinaren zaporeaz atsekabeturik, beduinoa gelaxka batean giltzapetzeko agindua eman zuen.	102
begietsi kontenplatu	...Ararat mendiaren zurtasun dotorea oso-osorik eta garbi-garbi begiesteko abagunea edukitzeak.	51
begikotasun sinpatia	Eguna ondo amaitzeko, begikotasun berdintsuaz jokatu dute ostatuko arduradunek gauean bertora itzuli naizenean.	43
begirune errespetua	Kontraste handia sortzen du arinkeria horrek aberri kontuetan sumatzen den begirunearekin .	25
begitandu iruditu	Zoragarria begitandu zaidan gela narrasa eman didate, eta liluragarria iruditu zaidan dutxa beroa hartu dut gelaxka zikin baten.	125
begiztatu begiradarekin antzeman	...gerra-ontziren bat ere begiztatu dut Itsaso Beltzean...	25
behargin langilea	Bide ertzeko behargin adar-jotzaileez gain, inor gutxi suertatu zait parean, ia pertsona bakarra...	35
behinola antzina, aspaldi	<i>Behinola, bi anaia gazte bizi ziren urruneko herri baten.</i>	31
berretsi konfirmatu	“Bush terrorist”!!! berretsi dute, eta hasierako mesfidantza keinua guttiz ezabatu da haien aurpegietatik.	42
berriketaldi hizketaldia, solasaldia	...alde egiterakoan, izan dugun berriketaldiaren laburtasuna gorabehera, haietariko bik etxea eskaini didate gaua pasatzeko, bina aldiz.	132
bertsu berbera	...aspaldi honetan askotan ari baita errepikatzen istorio bertsua ...	19
bidegurutze kurtzederoa	Esan liteke munduko bidegurutze nagusia dela hiri hau.	19
bidezidor basabidea, bidexka	Megmeten ostatu baserrira iritzi naiz, bidezidor aldapatsu bati jarraituz.	65
birjintasun berezko naturaltasuna	...baina errepide inguruan ehunka langile eta makinak dihardute birjintasun hori hondatzen...	35
botere faktiko Eliza, Armada... erakundeak	...erlijiozale kontserbadoreen botere faktikoarekin .	?
buruzagi liderra	Hirugarren ikasle batek honela hitz egin zien herriko buruzagiei ...	11
demasak ikaragarriak, itzelak	Ukondoei aurrera eta atzera eragiten hasi da, aurpegiaz plazer keinu demasak eginez...	36
desenkusatu eskusatu, aitzakia ipini	...Ismetek agur esan dit, etxera lehenbailehen itzuli behar zuelako desenkusatu .	55
deuseztatu ezereztu, suntsitu	...baina Ataturkek eta bere ondorengoek gogor jo zuten haien kontra, asmoa deuseztatu arte.	55
dohatsu bertutetsua	<i>Erregeak atseginez aditu zuen erantzuna, eta, oso pertsona dohatsuaren aurrean zegoela begitanduta, bere kargu hartu eta aholkulari lana eskaini...</i>	33
eltzekari lapikokoa (<i>cocido</i>)	Jabea dirudienak prestatutako eltzekaria jan dugu...	43
enigmatiko misteriotsua	...erantzun dit, irribarre enigmatikoz .	174
erreparatu zerbaitez ohartu	...bizikletaren erritmo patxadatsuak aukera eman zidan itxurari eta portaerari erreparatzeko .	18




eseki eskegi	...eta telefonoa esekitakoan harriduraz begira mintzatu zait...	50
eskerga itzela, erraldoia	...errepide inguruan ehunka langilek eta makinak dihardute birjintasan hori hondatzen, urtegi eskerga egiteko aitzakiaz.	35
eskupeko propina	Gero berriro jantzi, bainua ordaindu, oihalen arduradunari eskupekoa eman eta biza bideratu ziezadakeen bidai agentziaren baten bila hasi naiz.	49
espartzu belarkia, kordelak, sokak... egite	Gero garbitzaileei eskatu diet zerbitzua eta gizon txar batek goitik behera zarrantzatu nau espartzu moduko batez.	49
etsi amore eman	<i>Etsitzen hasita zegoenean, jauregi dotore baten sarrerara iritsi zen eta berri pozgarria eman zioten bertako zaindarien...</i>	32
ezkor pesimista	Edozein modutan ere, hasierako sentsazioak ezkor samarrak izan arren, beste aukera bat eman nahi diot hiri honi.	143
fanatismo jarrera irtena ideal baten defents	—Hau ez da fanatismoaren adierazlea —erantzun du, kokotseko lau ileetatik irribarrez tiraka—, nagikeriarena baino.	93
fardel paketea	Ez dakit inor kezkatuko den fardel beltzaren desagerpenaz.	111
finkotasun indarra	...esan du berak, aheskeraren finkotasuna berreskuratuz.	175
gainbehera dekadentzia	Otomandar Inperioaren gainbehera ekarri zuen Lehen Mundu Gerraren ostean...	25
gaitzetsi deitoratu, kondenatu	...gogor kritikatu eta egoera gaitzetsiz .	93
gako giltza	Dogu tour bidai agentzian sartzea izan da gakoa .	51
gogaikarri jasanezina, aspergarria, astuna	...honen gogaikarri jokatu ostean, kontsulak ziurrenik ez dit inola ere ipiniko beharrezko zigilua pasaportearen.	50
gomendio aholkua	<i>Gazteak ez zituen lar baliotsutzat jo gomendio haiek.</i>	32
gomuta oroitzapena	...oso gomuta ona gordetzen bainuen berataz.	152
gonbit egin gonbidatu	...harrera ona jaso zuten eta apaizek gonbit egin zieten sua sortzeko zeremonian ikusle izateko.	10
goraipatu goretsi, laudatu	Europako futbolarien izenak aipatu, ekipoak goraipatu eta abar.	23
gurtu adoratu, gorazarre egin	Hirugarren tribuko kideak Nour bera gurtzen hasi ziren, haren itxura irudikatzen zuen idolo baten bitartez.	10
harreramaile repcionista	Harreramailearen atzeko gizonak aldagela txiki bateko giltza eman dit...	48
hausnarketa gogoeta, pentsamendua	Bide bat egon daiteke zuk dirua aurrezteko —esan du Ismetek, nire hausnarketa etenaz.	53
hazpegiak aurpegi ezaugarriak (<i>rasgos</i>)	...baina Meter deitzen dio jendeak, bere hazpegiak direla eta.	96
heresia elizak gaitzesten duen doktrina	— Heresiaren mailan dago esan berri duzuna —leporatu zioten herriko apaizek.	12
herrimin nostalgia, malenkonia	...han utziak baitzituen antzina emaztea eta sei hilabeteko umetxoa, maiz herrimina sentiarazten ziotenak.	33
hotzikara dardara, asaldura	...eragin didaten hotzikara saihestu ezinik.	171
hozkirri freskoa	Udazken hozkirri eta lanbrotsu honetan, berriz, hutsik daude, ostatu eta jatetxeak bezalaxe.	23




hunkigarri bihozkorra	<i>Harrera hunkigarria eskaini zioten etxean sartzen ikusi zutenean, hain denbora luzea pasatu ondoren...</i>	34
hurreratu hurbildu, gerturatu	Berehala amaitu da irakurraldia, eta gazteak ere gure mahaira hurreratu dira.	137
idolo imajina jainkotua	...herriaren sarreran Nour irudikatzen zuen idoloarekin egin zuten topo.	11
iluntsenti iluntzea, ilunabarra	Iluntsentiaren aurretixe suertatu da momentuan, herriaren aurreko azken gaintxora iritsi garenean.	51
indarge akituta, nekatuta	Bero egiten zuen han; indarge legez jesarrita zeuden hiruzpalau gizonei agur egin diet.	48
itaun galdera	— Iraaaaaan... ondo? —izan da bere lehenengo itaun berezia.	129
izaera nortasuna	...bakoitzaren izaera eta zaletasunak azalduz joan dira...	92
izarapean ohean sartuta	Begiratu egingo diot izarapean liburu-dendako mutilak oparitu didan kondaira-liburuxkari.	100
izerdi patsetan izerditan blai, busti-bustirik	Nik, izerdi patsetan eta umore txarrez aldaparen gogortasunagatik...	24
jardun zerbaitetan aritu	Zapatariekin jarduten dut berbaz.	171
jasan sufritu	...ezin izan zuen luzaro jasan hango bizimodua...	170
jendarmeria polizia	Bidean, jendarmeria baten aurretik pasatzerakoan, uniformedun bat kalera irten eta keinu bitxia egin zidan...	24
jende xehe herritar arruntak	Kalean dabilen jende xehe gehiena, ostera, ezetz esango nuke.	38
kalifago kalifaren gobernu aldia	"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen.	26
keinu imintzioa	Keinu zalantzatsua izan da bere erantzuna.	176
kementsu gogoz, adoretuta	...nahikoa berpiztuta sentitu naizenean, kabinatik irten, bizikleta hartu eta mendatean beherantz abiatu naiz kementsu .	124
kilikagarri erakargarria, kitzikagarria	<i>Anaia aberatsa ez zen batere arduratu iragarkiaz, baina txiroari aukera kilikagarria iruditu zitzaion eta proba egitea erabaki zuen.</i>	31
kokots bidarra, aurpegi beheko intengu	...erantzun du, kokotseko lau ileetatik irribarrez tiraka.	93
kondaira legenda	— Egiatzkoa da suaren kondaira , eta nik badakit zelan piztu daitekeen.	12
lanbrotsu lainotsua eta zirimirizkoa	Udazken hozkirri eta lanbrotsu honetan, berriz, hutsik daude ostatu eta jatetxeak bezalaxe.	23
lantzean behin noizbehinka	Nik gogoko dut lantzean behin neure itxura aprobetxatzea.	115
lar gehiegi	<i>Gazteak ez zituen lar baliotsutzat jo gomendio haiek.</i>	32
larrutu pertsonek gogor kritikatu	...oso argi eta lasai mintzatu dira Irango bizimoduari buruz, bertoko agintariak errukirik gabe larrutuz , portaera-arauak gogor kritikatu...	93
lausengu alabantza	Maku ezagutzen dudala esan dut eta esker onez hartu du lausengua .	124
legetxe bezalaxe	Ez dakit berau alemana ala turkiarra zen, itsusia ala polita, estalita baitzihoan goitik behera, herri honetako emakume gehienak legetxe .	39



leia gaueko garo tanta izoztuak	...haranari jarraituz, ibaiko leia apurka zelan urtzen zen ikusiz...	126
liraintasun edertasuna	Alde batean meskita urdinaren liraintasun argia, beste aldean...	17
maisutasunez trebeki	Maisutasunez gidatu nau Peterrek gremioka banatuta dauden pasabide luzeetan barrena.	97
maiz sarri, askotan, usu	... maiz <i>herrimina sentiarazten ziotenak</i> .	33
makal ahula, indargea	Horrez gain, berandu samar abiatu naiz, zeruko eguzki makalak ematen zuen epeltasun apurra hobeto aprobetxatzearren.	122
mara-mara erori eta erori	Bai zera, goizean leihoa ireki dudanean elurra mara-mara ari zuen...	104
matxura aberia	...bigarrean jenderik ez dago baina hura bai, gainezka, komuneko matxura dela eta...	42
melatuta blai-blai eginda	Batetik bizikletaren gurpilak, besterik aurreratzen ninduten ibilgailuenak, bizpahiru kilometro bete ditudanerako melaturik nengoen.	122
minarete meskiten dorrea	...ez nahiz nekatzen haren sei minarete garai eta zorrotzek ematen dioten itxura lasaigarria miresten.	17
mirakulu miraria	—Ikusi berri duzuen ez da jainkozko mirakulua , edonork egin dezakeen gauza arrunta baino.	10
miresmen lilura	Nolabaiteko miresmena ere sumatzen da militar jendearekin.	41
monotono beti berdina	...eta gero Erdialdeko Anatoliako lurraldea zeharkatu behar da, ingurune lehorra, hotza, monotonoa ...	21
mugatu zedarritu	...hiri zaharra mugatzen duen harresiaren lehenengo hondakinak begiz jo ditudanean, ihesi nembilela ohartu naiz...	174
musu aurpegia	Alboan berrogeitaka urteko gizon txiki eta sendo ba zekarren, musu zaildukoa...	52
muzin egin kasurik ez egin	...zer pentsatzen duten [...] musulmanek aspaldion gertatzen ari denari buruz, ezjakinen iritziei eta hedabide fidatu ezinen informazioei muzin eginez .	20
nagikeria alferkeria, utzikeria	—Hau ez da fanatismoaren adierazlea —erantzun du, kokotseko lau ileetatik irribarrez tiraka—, nagikeriarena baino.	93
narras apaindu edo txukundu gabea	Zoragarria begitandu zaidan gela narrasa eman didate, eta liluragarria iruditu zaidan dutxa beroa hartu dut gelaxka zikin baten.	125
ogibide lanbidea	Nik, ostera, ea zer ari diren irakurtzen, ea zein den euren ogibidea ...	137
oinaze sufrimendua	...gaur jasandako oinazeak inorekin berriketan jarduteko gogoa ere kendu dit.	125
oldarkor erasokorra	...atzoko tabernari arraboldunaren jarrera oldarkorra ekarriz gogora.	93
onuragarri mesedegarria	ahalik eta pertsona gehienei irakastearren arte onuragarri hura.	9
oparo ugaria	...harreman estu eta oparoen ondoren guztiz isolaturik sentitzen naiz...	125
oratuta eutsita	...besaulkitik altxatzen lagundu dio eta sorbaldatik oratuta eraman du kalera.	83
ordainagiri faktura	— Ordainagiria emango didazu, behintzat, ezta?	81
oroitarri monolitoa	Ikusi besterik ez dago zenbat monumentu eraiki dituzten haien ohorez; Kop mendateko oroitarria , esaterako.	41



oskorri zeru gorria	...eguerdiko argi betean, ilunabarreko oskorrian ...	17
ostatatu alojatu	Kasu egin diet eta ostatatzeko lekuaz galdetu dut.	124
ostera ere berriz, beste behin	Bizpahiru oskol bitxi batu ditut, oroigarri gisa, eta Erico kaleen babesba bilatu dut ostera ere .	26
osterakide bidailaguna	...elkartu zait ibilaldian, ez baimenik ez antzekorik eskatzeke; “Nire izena Hussein da” esan eta horri nahikoa iritzi dio nire osterakide bihurtzeko.	129
paratu jarri	Etsipen keinua egin du sorbaldaz, zizpuruka, edo gurago izan du etorkizunari begira paratu .	135
pausatu ipini, jarri	...begirada pausaturik zeukan lekua seinalatuz.	174
porlan zementua	Lehenengo tartean errepide asfaltatutik ibili gara gero porlanezko pistatik eta azkenean lurrezko pizta lokazturik	65
saihestu alboratu, ekidin	...eragin didaten hotzikara saihestu ezinik.	171
samurtasunez maitekiro, ezteki	...ailegatzeko denbora luzea behar zutenak, bidean gal zitezkeenak, atzamar artean samurtasunez laztantzen direnak.	40
sarraski hilkuntza, masakrea	Turkia modernoari dagokionez, luzaroko borroka eta sarraskien ondoren, badirudi orain lasaixeago dagoela giroa.	56
sasi elkarrizketa berriketa hutsala	Batzuetan harritu egin naiz jendearekin izan ditudan sasi elkarrizketa luzeekin...	23
sinesgaitz ez sinestekoa	Sinesgaitza da honelako leku baten ondo sentitzea, baina ni ondo sentitzen naiz.	42
sorgortu ezindu, paralizatu	Kontua da nire belarri sorgortuei masajeak emanez ailegatu naizela...	124
suertatu gertatu	Bide ertzeko behargin adar-jotzaileez gain, inor gutxi suertatu zait parean, ia pertsona bakarra...	35
sultan arabiar herrialdeetako agintaria	"Turkiarren aitak" sultanari agintea kendu, kalifagoa abolitu eta Turkiako Errepublika laiko eta modernoa sortu zuen.	26
sumatu hauteman, igarri	Tristura sumatzen zitzaion aurpegian.	174
tankera itxura, jitea	...neska normalen tankera zeukatela iritzieta.	114
totelka zezelka, motel eta trabatuta	—Baina... —hasi nahiz esaten totelka , nahasturik—.	78
tramitazio dokumentu edo baimen gestioak	Astebete beharko dut tramitazio guztiak burutzeko.	54
tutik ez ezertxo ere ez	<i>Dena den, kalera irten zenean, tutik ere ez zion eman anaiari, andreak hala jokatzeko eskatu zion eta.</i>	32
ukabil esku itxia	...uniformedun bat kale irten eta keinu bitxia egin zidan ukabila ezpainetara eramanez.	24
uxatu aienatu, urrunarazi	Alemanez mintzatu zaidan gizon batek uxatu ditu umeok.	39
uztartu lotu, egokitu	Dena dela, tradizioarekin ondo uztartzen da hiri berria...	45
xarma enkantua	...haranari jarraituz, ibaiko leia apurka zelan urtzen zen ikusiz, xarma handirik gabeko herri honetara heldu naiz.	126
zahagi larruazalezko hodia	<i>Bi zahagi bete ur zeramatzan aldean, bata berarentzat eta bestea kalifarentzat.</i>	102



zaildu gogortua, eskarmentua hartutako	Alboan berrogeitaka urteko gizon txiki eta sendo ba zekarren, musu zaildukoa ...	52
zakarkeria gogorki, modu txarrean	...erantzun dit, tinko baina batere zakarkeriarik gabe.	54
zapuztu hondatu, alferrik galdu	Ez da, ordea, horretarako abagunerik izan, hortik pixka batera te tokiko arduradun nagusiaren etorrerak nire asmo onak erabat zapuztu ditu eta.	138
zarrantzatu txarrantxa edo eskuila latza pasa	Gero garbitzaileei eskatu diet zerbitzua eta gizon txar batek goitik behera zarrantzatu nau espartzu moduko batez.	49
zenbakaitz zenbaezina, ugari	...meskita zenbakaitzetako bozgorailuetatik aditzen diren otoitzak nahiz pubetako musika...	18
zigilu seilua, marka grabatua	...kontsulak ziurrenik ez dit inola ere ipiniko beharrezko zigilua pasaportearen.	50
zipriztindu tanta solteak erori	...beti ere espero ez bezalako ikuspegiak inguratuta: hariztiak, pagadiak, artaldeak eta behi-multzoak zipriztindutako zelai hezeak...	22
ziria sartu engainatu, iruzur egin	—Kondairak ez dira egiazkoak inola ere —ukatu zuten beste batzuek—, eta kanpotar honek ziria sartu nahi digu...	12
zizpuruka hasperenka, suspirioka	Etsipen keinua egin du sorbaldaz, zizpuruka , edo gurago izan du etorkizunari begira paratu.	135
zurrupada xurgatu zarata eginez	Beste batzuk bakarrik daude, errosario eskuan edo hausnarketan, teari zurrupada laburrak emanez, begirada galduta hormako zurtasunean...	39
zurrutada hurrupa, tragoa	Zurrutada luzea eman nion eta gizonak keinua egin zidan atzamarrez, guk “dirua” adierazteko egiten dugunaren antzekoa.	24